



## Abiarazi dute Paleta Txapelketa, 39 bikotekin

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko hiru segalari ariko dira finalean

Gabirondo, 'Urki' eta Goikoetxea ▶ 6

**TOLOSA** ▶ Tolosa CFk antolatzen duen txapelketak ospe handia hartu du azken urteetan

**LEHIA** ▶ Berazubiko pilotalekuan jokatuko dituzte partidak; finala hilaren 19an jokatuko dute ▶ 2


## Amaia Agirre eta Lierni Sestoraintzat izan da Plazaolaren lehiaketa

**LEITZA** ▶ Kartel lehiaketan helduen mailan irabazi du Agirrerren lanak eta aldizkariaren azalean joango da; Sestorainena, beherakoen mailan irabazita, barnealdean sartuko dute ▶ 7

ZIZURKIL ▶

## Bai Euskal Herriari ekimenak Naziotasun Eguna antolatu du

«Euskal naziotasuna» aldarrikatu dute hainbat ekitaldirekin; irailean, eskualdekoa egingo dute Tolosan ▶ 3



N. GARZIA

**J.M. GOROSTIDI** ▶  
ABALTZISKETAKO ALKATEA

«Larraitzeraino bidea egin nahi dugu»

Herritarrak alderdiko Gorostidik asmo ugari ditu herrirako ▶ 4



Gorostidi eta Murua. n. u.


**IÑAKI MURUA** ▶  
ALTZOKO ALKATEA

«Lokalak behar dira, herria oso dinamikoa da»

Haur eskolari beste kokapen bat bilatu behar diote ▶ 4

HITZAKO HARPIDEDUNEI  
ESKERRIK ASKO!

CJ  
DT



HITZAren urteko harpidetza kuota ordaintzeko, kontu korrante zenbakia eman diguzuenon artean, Casa Julian jatetxean 2 pertsonentzako afaria zozketatu dugu eta Idoia Murillo billabonatarra izan da irabazlea. **ZORIONAKI!**

KIROLAK ▶

# Berazubiko frontoian hasi berri da paleta pilotakaden hotsa

Herenegun hasi zen jokatzeko Tolosa CFk antolatutako 39. Paleta Txapelketa; 14 bikote ariko dira lehian



Berazubi pilotalekuan izako final-laurdenetako partida batean. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Abian da jada Tolosa CFk antolatutako 39. Paleta Txapelketa. Denera 14 bikote ariko dira lehian datorren egunetan. Ligaxka sistema erabiliko da, honenbestez, lehen kanporaketa hau herenegun hasi zen eta datorren ostegunera arte luzatuko da, hau da, hilaren 19a arte.

Norgehiagokak, aurreko urteetan bezala Berazubiko frontoian jokatuko dituzte. Hala, partidak berez atzerazekin badira ere, pilotalekuaren baldintzak direla eta, eguraldiagatik, esaterako, dataz alda daitezke.

Lehiakideak hiru taldetan banatu dituzte, eta multzo ba-

koitzeako bi lehen sailkatuko dira final laurdenetarako. Honez gain, hirugarrenetik bi hoberenek ere aurrera jarraituko dute.

Partidak 30 tantora izango dira. Emaitzen artean berdinketaren bat egonez gero, lehendabizi, berdinduta dauden bikoteen arteko emaitzak hartuko dira kontuan. Dena den, honekin nahikoa ez balitz, tanteo orokorren arabera erabakiko da, zeinek aurrera egin, eta zeinek ez. Hirugarrenik, onena erabakitzeak, talde bakoitzeko lehendabiziko lau bikoteen arteko partidak hartuko dituzte kontuan.

Bikote batek kale eginez gero, hau da, ez bada azaltzen,

partida galdutzat emango zaio 30-Oko emaitzarekin. Hala ere, ordezkioak bidaltzeko aukera badago, beti ere, bikotearen titular bat baldin badago.

Egun berean hiru partida baldin badaude, lehendabizikoa 18:30ean hasiko da. Bi bakarrik dauden kasuetan berriaz, 19:00etan hasiko dira jokatzeko. Bestalde, final laurdenetik aurrera, txuriz jantzita jokatu beharko dute pilotariak.

## Hasi da lehia

Gaur arratsaldean hiru norgehiagoka jokatuko dituzte, hauek 18:30ean hasiko direlarik. Lehendabizi, Sarasua-Jo-

## PARTAIDEAK ▶

### A taldea.

1. Lontxo-Nazabal
2. Apeztegia-Maiza
3. Peio-Jon
4. Landa-Galarraga
5. Xanet-Trinkete

### B taldea.

1. Otermin-Goitia
2. Artola-Txepe
3. Beobide-Jokin
4. Zabala-Domingorena

### C taldea.

1. Zabaleta-Urdanpilleta
2. Tabxen-Aierdi
3. Sarasua-Joseba
4. Goiburu-Etxarri
5. Balerdi-Agirre

seba ariko dira, Balerdi-Agirre-  
ren kontra. Bigarren saioan,  
Lontxo eta Nazabal Peio eta Jo-  
nekin lehiatuko dira. Amaitze-  
ko, eguneko azken partida Ta-  
txen-Aierdi eta Balerdi-Agirre-  
ren artekoa izango da.

Bihar beste hiru partida jokatu-  
ko dituzte. Lehendabizikoan  
Artola eta Txepe, Zabala eta  
Domingorenaren aurka lehiatuko  
dira. Jarraian, Lontxo-Na-  
zabalek osatutako bikotea Xanet  
eta Trinketeren aurka ariko  
da. Amaitzeko, berriz, Zabaleta  
eta Urdanpilleta Goiburu eta  
Etxarriren aurka lehiatuko  
dira.

Asteko azken egunean ere  
hiru partida ikusi ahal izango  
dira. Hasteko, Lontxo eta Na-  
zabal, Apeztegia eta Maizaren  
kontra ariko dira. Segidan,  
Landa eta Galarraga, Peio eta  
Jonekin lehiatuko dira. Azken-  
ik, Artola-Txepe eta Beobid-  
Jokinek osatutako bikoteen ar-  
teko norgehiagokak ikusi ahal  
izango dira.

Datorren astean, astelehenetik  
ostegunera beste 12 partida  
jokatuko dituzte parte-hartzaileek.  
Hauek amaitu eta gero,  
emaitzen arabera erabakiko da  
zein igaroko den final laurdenetarako.  
Bestalde, antolatzailen esanetan,  
partiden egutegia finkatua badago ere,  
«eguraldiaren iragarpenagatik, hau  
da, euria egingo duela uste delako,  
ez dugu erabat zehaztu egitaraua».

TOLOSA ▶

## Aralar kirolak-en saldu da 22.708, txartel irabazlea

Igarondo Merkatarien Elkar-  
teak antolatutako 2007ko  
Sanjoanetako saskiaren zoz-  
ketaren zerbaki irabazlea  
22.708 izan da. Zerbaki hau  
Aralar Kirolak dendak bana-  
tu zuen. Horregatik, maiatza  
eta ekaina bitartean denda  
horretan erosketak egin di-  
tuztenei txartelak begiratze-  
ko eskatzen diete, eta irabaz-  
lea Igarondo Elkartearekin  
harremanetan jartzeko, den-  
dara bertara hurbilduz edo-  
ta honako telefono zenbakira  
deituz: 943 67 52 24.

TOLOSA ▶

## Oargik Picos de Europa irteera antolatu du

Oargi mendi elkarrekiterra  
antolatu du hil honen  
amaierarako. Hilaren 27an  
abiatuko dira Picos de Euro-  
para, Asturiasko Sotres he-  
rriera hain zuzen ere. Bost  
eguneko txangoaren ondo-  
ren, hilaren 31ean itzuliko  
dira.

ANOETA ▶

## Donibane Lohizunera bidaia Alkartasunatik

Alkartasuna Biltokiak Doni-  
bane Lohizunera bidaia an-  
tolatu du hilaren 16rako.  
08:30ean aterako dira eta  
Oiarzuneko Hiriharri jate-  
txean geldialdia egingo dute.  
Gosaldu, eta ondoren, pro-  
moziozko hitzaldia izango  
dute eta bertan ere bazkal-  
duko dute. 15:30ean Doniba-  
ne Lohizunera aldera joango  
dira, bertan arratsaldea pa-  
satzeko. Bidaia dohainik da  
eta Alkartasunako bazkide-  
ak direnak nahiz ez direnak  
joan daitezke. Izena biltokian  
bertan eman ahal izango da.

TOLOSA ▶

## Benidormera bidaia antolatu du Harizpek

Harizpe jubilatuen eta pen-  
tsiodunen elkarrekiterra opor-  
raldia antolatu du Benidormen  
irailaren 29tik urriaren 13ra.  
Izen-ematea bertan egin dai-  
teke.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar da, ebeko lanak egin eta bi ume zaintzeko, goizetan Ibarren. Interesatuak deitu 943 67 15 09ra.

**Sukaldari laguntzailea.** Iturri-  
goxo jatebean sukaldari laguntzailea behar dugu. Deitu 943 69 12 10ra.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Begiradak.** Atal berri honetan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratutako hainbat gai zehatzen inguruko testu bildumak aurki ditzakezu: etxebizitzak, musika taldeak, Alkateei elkarriketak...



Joan den urteko Paleta Txapelketako finalistak. JAIONE ASTIBIA

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

# Euskal naziotasuna aldarrikatuko dute hainbat ekitaldirekin

Bai Euskal Herriari herri ekimenak Naziotasun Eguna antolatu du Zizurkilen, besteak beste, bertso afari batekin



Ekzer-eskuin, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu, bertso saioan. HITZA

ERREDAKZIOA

Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatuta, Naziotasun Eguna egingo dute etzi Zizurkilen. Euskal naziotasuna aldarrikatzea dute helburu egun horrekin. Hainbat ekitaldi egingo dituzte arratsalde eta gau partean, eta guztiak Zizurkil Goiko Zimiterioaren inguruan izango dira.

Pilota partidekin hasiko dira ekitaldiak. 18:00etan ekingo diote kirol ekitaldiei Zimiterioan. Pilota partidak amaitu eta gero sagardo dastaketa eta triki poteoa egingo dituzte.

ESKUALDEAN

**Zizurkilekoaz gain, Adunan egingo dute abuztuaren; eskualdekoa Tolosan antolatu dute irailerako**

Bertso afariarekin bukatuko dituzte ekitaldiak. 21:00etan elkartuko dira Zimiterioan. Bertso jarriak eta bapatekoak nahastuko dituzte afal ondoan. Batetik, Eñaut Agirre hernaniarrrak bertso jarriak abestuko ditu. Hain zuzen, Agirrek Ota-

ñoren bertso zaharrak zein berak eginak abestuko ditu bere musika taldearekin. Bestalde, bapatean ariko dira eskualdeko bi bertsolari: Amaia Agirre billabonatarra eta Jexux Mari Irazu larrauldarra. Afarirako txartelak ohiko lekuetan dade salgai. Zizurkilen, esaterako, Zentroan erosi ahalko dira.

Zizurkilez gain, Naziotasun Eguna eskualdeko beste herri batzuetan antolatzeko asmoa dute Bai Euskal Herriari ekimenekoek. Horrela, abuztuaren Adunan antolatuko dute eta eskualdeko Naziotasun Eguna Tolosan egingo dute irailean.

ALKIZA ▶ GIZARTEA



## Lehen kutxazaina jarri dute udaletxearen azpian

**Erredakzioa** ▶ Kutxak kutxazaina jarri du Alkizako udaletxearen azpian. Agenda 21eko prozesuan zehar egindako eskarietako bat izan zen kutxazain bat izatearena. Udala Kutxarekin jarri zen harremanetan eta berehala adostu zuten kutxazaina jartzea. Udalak bere gain hartu du obra-lanak eta beste guztia Kutxaren esku izan da. I. GARCIA

AIZTONDO ▶

## Santillana del Mar-era bidaia jubilatuentzat

Aiztondo Zerbitzuen mankomunitateak Santillana del Mar (Espainia) herrira bidaia antolatuta du jubilatuentzat hilaren 26rako. Herriaz gain, Altamira museoa bisitatuko dute. Santanderren ere izango dira, Magdalenaren penintsula trenetuz bisitatuz. 23 euro balio ditu bidaia, bazkaria barne. Izena emateko azken eguna hilaren 16a da.

ALKIZA ▶

## Liburutegiak goizez irekitzen ditu bere atak

Alkizako liburutegiak bere ordutegiak aldatu ditu udari begira. Horrela, goizez egongo da irekita abuztuaren amaiera arte. Hain justu, bere ordutegia ondorengoa da: asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:30era. Abuztuaren 30a arte iraungo du ordutegi honek. Irailaren 3tik aurrera arratsaldez irekiko dute liburutegia.



**Higiezin Agentzia**

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

**Amasa.** 124m2ko etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.

**Anoeta.** Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai. Garajearekin eta altzariz hornituta.

**Anoeta.** Hartziko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berritzeko.

**Betelu.** Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezinhobean.

**Donostia.** Mandasko duke kalean etxebizitza salgai dago atikoarekin. Eraberritua.

**Ibarra.** Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. Plazaren inguruan.

**Irura.** Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, egoera ezinhobean.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta guztiz berritua.

**Tolosa.** Etxea eraikin atxikian, bi etxebizitzetan banatua, garajearekin eta bokoaarekin.

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

**Tolosa.** Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m2.

**Tolosa.** Belate inguruan, azken lau garaje ibxiak. Eraiki berriak.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, merkataritzarako lokala bi solairurekin, bakoitzak 35 m2.

**Tolosa.** Marbxan dagoen ostalaritzako negozioa salgai. Zentroan.

**Tolosaldea.** Baserria 10.000 m2ko lurrekin, egoera onean.

## ABALTZISKETA-ALTZO ▶ POLITIKA

Ibiur urtegiak eragin ia zuzena izango du Abaltzisketan eta Jexus Mari Gorostidi alkate berriak (Herritarrak) hauekin lotutako proiektuen berri eman ditu, besteen artean; bestalde, Altzon Iñaki Murua (Batzarremuino) herriko eskolari eman dio garrantzi gehien NEREA URBIZU

## JEXUS MARI GOROSTIDI ▶ ABALTZISKETAKO ALKATEA

## «Oinezkoentzat bide bat egin nahi dugu herritik Larraitzera»

Asmo asko daude, eta hainbat proiektu aurrera doaz

Jexus Mari Gorostidi (Herritarrak) Abaltzisketako alkate berria da (Abaltzisketa, 1965). Momentuz, bi arratsaldetan egongo da udaletxean, astez 6 orduz, bere lana utzi gabe.

**Zeri heldu behar dio Udalak?** Egokitu zaiguna Ibiur da. Aurreko udaletxeak onartu zuen hango azpiegiturarekin Larraitzerainoko bide bat, oinezkoentzat eta bizikletakoentzat, baina ez da bidegorria. Baso-bideak dira eta harrizkoak. Onartuta dago eta aurrekontuak ere bai. Ibilbidea da erabaki behar duguna eta hori ikusi behar dugu. Ibiurrek hiru herri hartzen ditu: Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketa.

**Ibiurrekin, saneamendua.** Ibiurrekin lotuta herriaren saneamendua egin beharko genuke. Ibiurko errekarara joaten

dira ur zikinak eta orain hemengo urak bildu eta lur azpitik Amezetako errekarara bidaltzea izango da. Araztegia egiteko dago, Ipintza gainaldetan. Hau Ibiur ez zikintzeagatik izango da, eta Ibiur obrari dagokio. Onartuta dago, baina zulo hau beherago egin dezaten nahi dugu, lursailak gehiago aprobetxatzeko.

**Herriko arauekin zer moduz?** 2002an onartuta daude, baina beste 8 urterako berriak egin behar ditugu. Denbora behar da horretarako eta alegazio batzuk baldin badaude, atzera berriz ikusi behar da. Herriko normak urbanizazioarekin beteta dago. Lursailak errekalifikatu egin behar ditugu etxeak egin ahal izateko. Hutsik ez dago ezta bat, eta lursailen bat badago beheran, eta behin ur-

banizatzen hasiz gero, aprobetxatu eta gehiago egingo genituzke. Oraindik ez dakigu norakoa joan ere, ideia da. Zer edo zer egin behar da, bestela jendeak herritik alde egingo du.

**Luzerako lanak dira.** Bai: eta herriko inbentarioa, duela 20-25 urtekoa dago eta berriz egiteko asmoa dugu, saiatu behintzat: ez dakigu udaletxeak zein balore duen, lursail asko baserriarekin nahastuta daude... Gutxienez argitzen saiatu behar da.

**Herri-bideei dagokionez?** Aspaldikoak dira eta zahartuta daude, puskatzen hasita, pitzatuta. Dirua lortuko bagenu, horiek mantenduko genituzke, txukundu behintzat.

**Eskola berria ere inauguratu duzue.** Orain arte lau gelatan zeuden,



N. URBIZU

Kultur Etxean bi gelatan, eta udaletxean beste bi. Iaz lortu zuten 12 urteak arte gelditu ahal izatea, onartu zuten. Eraikin hau eskola zen, eta orain arte ostatua zen bakarrik, aterpea ere izan da. Hemendik aurrera, eskola eta ostatua izango dira. 27 bat ume daude orain eta gehiago ari dira jaiotzen; biztanlegoa igotzen ari da. Duela 10 bat urte 220 bat ginen herrian, eta orain 310

gara. Mugimendua, behintzat, badago.

### Eta turismo aldetik?

Ibiurrek pentsatzen dut egingo duela zerbait. Gero, oinezkoentzat bide bat egin nahi dugu Abaltzisketatik Larraitzera, baina asmoa da, besterik ez. Ez dakigu egingo den ala ez. Mendiari kenduta zabaldu beharko litzateke, ez baita posiblea errepidea zabaltea. Hor jende asko ibiltzen da pasean. ◀

## IÑAKI MURUA ▶ ALTZOKO ALKATEA

## «Lokalen beharra dago, herri hau oso dinamikoa delako»

Haur eskola irailean beste norabaitera pasa beharko dute

Altzoko alkate berria (Batzarremuino) Iñaki Murua da (Altzo, 1966). Duela 12 urte ere alkate izan zen, beraz, badaki udaletxeko kontuen inguruan.

### Nolatan berriz alkate?

Pixka bat egoerak behartuta. Ilegalizazioak direla eta ez direla, jendea prest bazegoen, baina esperientzia zuen jendea ere behar zuten, eta azkenean zerrendaburu bukatu nuen. Gustura, batez ere azken 4 urteetan ez zelako herritarren borondatea bete eta horren aurrean berriro aurkeztea pentsatu genuen ahalik eta berme gehiena zituen zerrenda bat osatuz, eta azkenean lortu genuen.

### Altzolanean ilegalizatu egin zuten.

Susmoa ere bazuten, bage-

nuen, «kutsatuta» zegoen jendea zegoelako. Azkenean lortu genuen, baina horrek ez du kentzen sakoneko arazoa, zerrenda batzuk dauden egoerak daudelako: herritar batzuk ezin dute hautagai izan eta hori injustizia handia da. Duela lau urte ilegalizatu zuten Altzolan Altzolanean Bizi plataformaa, eta aurrean ez genekien noraino sartu, noraino ez sartu... Saiatu gara ahalik eta jende garbiena sartzeko eta aurrera goaz.

### Osatutako taldea nolako iruditzen zaizu?

Gogoeikin sartu gara eta hori da garrantzitsua. Askotan inportantzia zerrendaburuari ematen zaio, baina taldea da garrantzitsua.

### Oposizioen EAJ duzue.

Bai. Haiek lanerako prest agertu dira. Guk beti kontuan dugu herriko zati bat ordezkatzeko dutela eta bere garrantzia dute ere, noski.

### Zeri helduko diozue?

Eskola egin zen iaz eta haur eskola bertan zegoen. Baina eskola asko hazi da eta haur eskolari beste leku bat aurkitu behar diogu: obrak behar ditu eta presaka gabiltza, baina beharrezkoa da. Adjudikazioa egin dugu. Herrian lokalen beharra dago, herri hau oso dinamikoa delako: dantza taldea, gimnastika, yoga, musika eskola... Egutero ekintza asko dago eta ez dago lokalik. Udalek geletan edota Lizarben ibiltzen dira.

### Arau berriztatzaileei dagokionez?



N. URBIZU

Garbi dugu aldatu egin behar direla, agortuta baitaude. Horrek etxebizitzak etorriko lirateke, baina beti ere beharren arabera izan behar dira. Biztanlegoa igo egin da 8 urtetan eta horren adibide eskola bera da: eskola martxan jarri genuenean 9 haur zeuden, eta gaur egun 52 daude. Honek bizia ematen dio herriari, dinamika eta mugimendua.

### Eta turismoa indartzeko?

Hain zuzen ere, industria eta turismo batzordea badugu, eta ideia batzuk badaude, baina zehaztu gabekoak dira. Ideia gauzatzeko aldera, hasiko ginatke gauzak begiratzen. Oso orokorra da duguna, baina ibilbide moduko bat izango litzateke. Altxozpitik konpondutako errota ondotik igarota, Altzoko erraldoiarekin lotuta, eta abar. Esan bezala, oso orokorra da, formarik gabeko zerbait. ◀

KUTXAREN GIZARTE EKINTZA - 2007 UZTAILA

# gizarte ekintza kutxa

## Laguntzeko borondatea

**K**utxak hiru gai nagusi hauetan oinarritu behar ditu Gizarte Ekintzaren baliabideak eta ekimenak: osasuna, gizarte-bazterketaren aurkako borroka eta gizartean premia gehien dituzten gizon-emakumeen babesa. Hala adierazten dute behin eta berriz gipuzkoarrek, **kutxak** aldizka egiten dituen inkestetan. **kutxaren** gizarte-ekintzak nolakoa izan behar lukeen galdetzen zaio gizarteari inkesta horietan, haien nahia zehatz-mehatz jakiteko. Gaur egun, baieztatu daitezke gizarteak gero eta uste irmoagoaz zer eskatzen duen: **kutxa** solidarioagoa, pertsonen osasuna, gaixotasunak edo minusbalotasunean eraginkortasunez esku hartuko duena.

Hurrengo egunotan barrena, **kutxaren** gizarte-ekintzako alderdirik nabarmengarrien berrikusketa labur bat egingo dugu, eta, kasu guztiak agertuko ez badira ere, **kutxaren** laguntzeko borondatearen adibide argienetako batzuk bai, azalduko dira. Izan ere, laguntzeko borondate hori dute ardatz Gizarte Ekintzaren ekimenek, eta, zalantzarik gabe, indartzeko joango da datozen urteetan.

Mendekotasuna duten pertsonak zainduko dituzten profesionalak eraginkortasunez trebatzeko **kutxa**Zabal zentroak egiten dituen jardueri buruz mintzatuko gara, besteak beste; edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko **Kutxa**-Zeharoren esperientziak; eta aipatuko dugu nola egoitza, eguneko zentro eta harrera-etxebizitza berriak martxan jarri diren, eta nola beroriek izen handiko bi erakunde hartu dituzten beren ardurapean: Atzegik, adimen-minusbalotasuna dutenei laguntzeko elkarteak, eta Gautenak, autismoa duten pertsonen laguntzeko erakundeak, hain zuzen ere.

Hona hemen, beraz, **kutxak** 2007an sustatu dituen Gizarte Ekintzako ekimen garrantzitsuenetako batzuk. Eta, era berean, **kutxak** duen laguntzeko borondatearen adibide garbi; ez baitira aldi baterako ekimen hutsak; aitzitik, osasun-sistema hobea eta asistentzia-baliabide eraginkorragoak izateko ahalegin estrategikoa baizik, Gipuzkoaren eta gipuzkoar guztien ongizateari, garapenari eta aurrerapenari eragiten baitiete zuzenean.

Litekeena da zentroa **2009**ko urtarrian jartzea martxan

## Institutu Onkologiko berria *eraikitze lanak erritmo onean doaz:* *hondeaketa- eta zimendatze-lanak amaitu dira*

45 milioi euro bideratu dira ospitale-gune berria eraikitze eta hornitzeko

**A**maitu dira Institutu Onkologikoaren egoitza berriaren zimendatze- eta hondeatze-lanak. Egoitza horren eraikuntza **kutxa** sustatzen ari da Donostiako ospitale-gunean. Lanak erritmo onean doaz aurrera, eta ezarritako epeak betetzen ari dira. Beraz, hurrengo hilabeteetan denak horrela jarraituz gero, Institutu Onkologiko berria martxan jarriko da **2009**ko urtarrian.

**Kutxaren** Gizarte Ekintzak 45 milioi euro bideratu ditu Institutu Onkologikoaren egoitza berria eraikitze eta hornitzeko, eta, orain arte bezala, giza baliabide eta baliabide teknologiko aurreratuak edukiko ditu tumore-gaixotasunak detektatzeko eta tratatzeko. Gainera, Institutu Onkologiko



Lanen egoera ekainaren erdialdera.

**Amaitu dira Institutu Onkologikoaren egoitza berriaren zimendatze- eta hondeatze-lanak**

**Lanak erritmo onean doaz aurrera, eta ezarritako epeak betetzen ari dira**

berria Donostiako beste ospitale-etatik hurbil egongo da, eta horrek erosotasun handiago ekarriko du ospitale horietara eraman behar diren gaixoen zatia. Bestalde, insta-

lazio berriak bertara iristeko eta aparkatzeko kondizio pribilegiatuak edukiko ditu, gaur eguneko hori ezinezkoa baita.

Etorkizuneko Institutu Onkologikoak 23.600 metro karratuko azalera beteko du, eta dagoeneko eraikitzen ari den lehen solairua. Ospitale-zentroak bost solairu edukiko ditu eta bi patio argitsuren inguruan eraikitako berriak ezaugarri horietako azpiegituraren behar guztiak betetzeko ditu.

**Kutxaren** Institutu Onkologikoaren erakundearen gizarte-ekimenen artean balio gehien duena da. 1933an sortu zen, eta **kutxarena** da 1952tik. Urtero, 65.000 pertsonari laguntzen zaio eta 3.000 ebakuntza kirurgikotik gora egiten dira.



SEGA ▶



Arkaitz Arteaga baliaindarrak Euskadiko sega finaletik kanpo geratu zen Oiartzunen. HITZA

## Euskadiko finalean eskualdeko hiru segalari egongo dira

Joxe Gabirondo, Andoni Goikoetxea eta Jexuxmari Ormaetxeak Jon Lapazaran markinarra izango dute arerio

### ASIER IMAZ

Euskadiko Segatxo Txapelketako bi finalerdi saioak jokatu zituzten igande eguerdian Oiartzuneko Pikoketako belardietan (Gipuzkoa). Sei segalari, hila-ren 22ko finalerako lau txartel, 30 minututan nor bere gehiagoko moztu eta bildu eta txapelketaren urduritasunak elkartu ziren Oiartzunen igandean.

Lehenengo finalerdi saioan, Arkaitz Arteaga baliaindarrak, Joxe Gabirondo gazteluarra eta Jexuxmari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak aritu ziren deman. Gabirondok ebaki zuen belar kilorik gehien norgehiagoka horretan, 2.741 kilo, hain zuzen ere. Gazteluarrak, iragan astean jantzi zuen Gipuzkoako Segatxo Txapelketako txapela eta sasoko dagoela erakutsi zuen berriz ere. Bigarren postua Urkirentzat izan zen. Orendaingo segalariak 2.713 kilo ebaki zituen. Gipuzkoako Txapelketan *Urki* hiru-

garren postua lortu zuen Larraitz. Saioko azken postuan Arkaitz Arteaga geratu zen, 2.298,5 kilo moztu zituelarik baliaindarrak. Bi finalerdi-tako emaitzak kontutan hartuta, Arteaga geratu zen azkena, honen ondorioz, finaletik kanpo geratu zen.

Bigarren saioan, Jon Lapazaran markinarra, Mikel Alkorta asteasuarra eta Andoni Goikoetxea gazteluarra aritu ziren lehian. Belardi berean baina beste sail batean aritu ziren bigarren finalerdi segalariak. Bizkaitarra nagusitu zen saio honetan, orduerdiko lanean, Lapazaranek 2.779,5 kilo moztu zituen. Bigarrena 2.736 kilo moztu ostean, egungo Euskadiko txapeladuna eta Gipuzkoako Segatxo Txapelketan bigarren geratu zen Andoni Goikoetxea izan zen. Mikel Alkorta hirugarren geratu zen, 2.425,5 kilorekin. Asteasuarra ondorioz, Arteagarekin batera finalerdi kanpo geratu zen.

Bi finalerdiak kontutan hartuta, Jon Lapazaranek lortu zuen lehen postua. Bigarren, Joxe Gabirondok moztu zuen belar gahien, bizkaitarrendantik 38 kilotara. Hirugarrenak, Andoni Goikoetxeak hain zuzen ere, 43 kilo gutxiago moztu zituen eta *Urki* oren-

daindarrak 66 kiloko diferentzia izan zuen aurka. Lau segalari hauek jokatu dute Euskadiko Segatxo Txapelketako finala.

### Eskualdeko hiru finalean

Finala hilaren 22an jokatu dute, berriz ere Pikoketako belardietan, Oiartzunen. Txartela lortu duten lau segalarietatik hiru Tolosaldekoak izango dira, bi gazteluar eta orendaindar bat. Hala eta guztiz ere, finalerdiaren Jon Lapazaran bizkaitarra izan zen lehena eta sendo dagoela erakutsi zuen markinarrak.

2006. urteko Euskadiko Txapelketako finalerdi alderatuta, aldaketa bakarra egongo da aurtengoan; Mikel Aranalde gazteluarren lekuan Jexuxmari Ormaetxea, *Urki* egongo dela, hain zuzen ere.

### SAILKAPENA ▶

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

Segalariak	Kiloak
1. J. Lapazaran	- 2.779,5
2. J. Gabirondo	- 2.741
3. A. Goikoetxea	- 2.736
4. Urki	- 2.713,5
5. Mikel Alkorta	- 2.425,5
6. Arkaitz Arteaga	- 2.298,5

IBARRA ▶ AIZKORA

## Gipuzkoako Bigarren Mailan, Mujika bigarren

Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa Usurbilen jokatu zuten larunbatean



Mujika 2. geratu zen Gipuzkoako Bigarren Mailako Txapelketan. A. I.

### A. IMAZ

Jexux Mari Mujika ibartarra bigarren geratu zen Usurbilen larunbatean jokatu zen Bigarren Mailako Gipuzkoako Aizkolarari Txapelketan.

Ibartararekin batera, bost aizkolari gehiago aritu ziren txapelaren bila. 54 ontzako lau enbor eta 60 ontzako bi moztu behar izan zituzten sei aizkolariak. Lanak azkarren, 14.19ko denboran, Jesus Mari

Lasak egin zituen, ondorioz, txapela irabazteaz gain, heldu den urtean maila nagusian artzoko aukera izango du.

Lasaren atzetik Mujika geratu zen, 15.36ko markarekin. Urrezko aizkoran itxura ona eman ondoren, ibartarrak bide honetik jarraitzen duela erakutsi zuen Usurbilen. Hirugarren Ugarteburu geratu zen, 15.39ko denborarekin. Ondoren Aierbe, Zubizarreta eta Mugerza geratu ziren.

BELAUNTZA ▶

## Agenda 21ko lehen herri batzarra bihar

Belauntzako Agenda 21 egitasmoak herriaren egungo egoera isladatzen duen diagnostikoaren lehen zirriborroa osatu du. Diagnostikoan ekonomia, gizarte eta ingurumen gaiak biltzen dira. Aipatu diagnostikoa herritar guztiei zabaldu eta euren ekarpenak jaso nahi dituzte, eta horretarako Belauntzako Udalak herri bilera antolatu du bihar arratsaldeko 19.30ean, herriko Kultur Etxean.

IBARRA ▶

## Helduen danborradarako entseguak

San Bartolome jaietako danborrada nagusiaren prestaketa lanekin eta entseguen hastear daude Ibarren. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi dutenek ohiko lekuetan jarriko diren zerrendatan izena eman dezaten eskatu dute. Danborradako entseguak, etzi eta abuztuak 20 eta 21ean egingo dira. Izen-emateko azken eguna berriz biharkoa izango da. Entsegu batetara joatea eskatzen dute atera ahal izateko.

IKAZTEGIETA ▶

## Udaleko lantaldeak osatzeko bilera

Gaur 20:00etan Udalak deituriko bilera izango da. Liburutegian bilduko dira eta herritarrei nahiz gizarte eragile guztiei zuzenduta dago deialdia. Bertan, lantalde edo komisioko egiteko aukerak aztertuko dituzte, Udalaren erabakietan herritarrek parte-hartze zuzenago bat izan dezatan. Talde hauek osatu nahi dituen orok, liburutegian lortuko du informazio gehiago.



LEITZA ▶ KULTURA

# Plazaolaren lehiaketa Amaia Agirrek eta Lierni Sestorainek irabazi dute

Amaia Agirreren lanak, helduen mailan irabazle izan denak, aldizkariaren azala atonduko du eta Lierni Sestorainena barruan joango da, egitarauaren ondoren

NAIARA GARZIA

Aurrerak urtero antolatzen duen Plazaola aldizkariko azalaren lehiaketak jada badu irabazlerik, igande eguerdian bildu baitziren Aurreran bertan hautaketa egiteko.

Lehiaketa hau bi mailatan egiten da, helduek eta 16 urtetik beherakoek parte har baitzakete. Lehenengo mailan

Amaia Agirrek irabazi du, eta bigarren mailan, Lierni Sestorainek.

Leire Karrera Aurrerako festa batzordeko kideak azaldu duenez, «umeen mailan lanak normalean eskuz egiten dituzte, helduetan, aldiz, gero eta gehiago ordenagailuz egiten dituzte». Jasotako kartel kopuruari dagokionez, aurten partehartzea lehenengo urtean bai-

no eskasagoa izan da. «16 urtetik beherako kategorian aurten lan bakarra jaso dugu, lehenengo urtean baino gutxiago. Helduen mailari dagokionez, 5 inguru jaso ditugu, gehienak epezkano izan diren arren». Kartelak jasotzeko epea ekainaren 29an amaitu zen eta joan den igandean irabazleak aukeratu zituzten. «Jende gutxi xamar bildu zen Aurreran irabaz-

leak aukeratzeko», dio Karre-

rak. Amaia Agirrek egindako lana Plazaola aldizkariaren azalean jarriko dute, beraz, eta Lierni Sestorainena, barruan. «Azken hau egitarauaren ondoren doan lehenengo orrian jartzen dugu beti». Honetaz gain, bai Agirrek bai Sestorainek, abuztuaren 10ean sari bana jasoko dute.

ARESO ▶



Areso, lehenengo urtean. HITZA

## Areso 600ekoan oraingoz hirugarren

Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatiraren Finala igande honetan izanen da, Mutrikun

ERREDAKZIOA

600eko kategorian San Kristobalen jokaturako bigarren jardunaldian Aresok lehenengoan lortutako hirugarren postua mantendu du. Honela, lehenengo bi jardunaldietan Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketan parte hartu duten talde guztiek postu berberak mantentzen dituzte.

Aresok 4 puntu lortu ditu bi jardunaldietan, hirugarren postua eskuratuz. Aurretik Goiherri A eta Gaztedi A ditu. Hauek lehenengo jardunaldian 5,5na puntu lortu zituzten arren, Goiherri Ak bigarren mailan irabazi egin zuen. Aresoren atzetik Mutriku, Goiherri B eta Gaztedi B doaz, hiru, bi, eta puntu batekin.

600 kilotako Lur Gaineko Euskal Herriko Txapelketako azkeneko jardunaldia igandean izanen da, Mutrikun.

LIERNI SESTORAIN ▶ IKASLEA

## «Ikurrin bat marraztu dut eta erdian zezen bat gizon batekin»

Lierni Sestorainek (Leitza, 1993) 16 urtetik beherako mailan Plazaolaren lehiaketa irabazi du. Aurten aurkezten den hirugarren aldia da.

**Aurten egin duzun lanean zer marraztu duzu?**

Ikurrin bat marraztu dut, eta erdian zezen bat gizon batekin. **Beste urtetan zer marrazki egin dituzu?**

Urte batean udaletxea egin nuen, dantzari batzuekin, eta beste batean ordenagailuz egin nuen, herriko argazki batzuekin.

**Zergatik aurkezten zara urtero?**

Urte batean pinturako eskolara joaten ginen eta han lehiaketarena esan ziguten eta ani-



N. GARZIA

matu egin nintzen. Orain urtero aurkezten naiz.

**Irabazten duzun bigarren saria da hau.**

Bai, urte batean bi pertsona aurkeztu ginen eta biak saritu gintuzten. ◀

AMAIA AGIRRE ▶ IKASLEA

## «Niri jendeak kartela ikusterakoan zalantzak izatea gustatzen zait»

Amaia Agirrek (Leitza, 1985) Plazaola aldizkariaren azalaren lehiaketa irabazi du bigarren aldiz. Aurten ere bere lana azalean joango da.

**Aurten zer egin duzu?**

Erloju bat egin dut, ordenagailuz, ezpata dantzari batekin 18:00ak ematen. Garai bateko erloju bat da, eta barruan zenbaki erromatarak ditu, eta Aurrerako marrazkia du.

**Lehenengo urtekoa edo aurten goa, zein duzu gustukoena?**

Niri lehenengo urtekoa gehiago gustatzen zait, baina nire ustez jendeari aurtengoa gehiago gustatuko zaio.

**Zergatik?**

Argiagoa delako. Niri aurten goa pertsonalki ez zait gusta-



N. GARZIA

tzen, ni ez bainaiz horrelakoa, argiegi ikusten da dena. Lehenengo urtean jendeak zalantza zuen, udaletxea zen edo ez... Eta niri jendeak kartela ikusterakoan zalantzak izatea gustatzen zait. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Biarritzera kart-etan ibiltzera irteera antolatu du Gazte Topaguneak gaurko. Prezioa: 12 euro. Irteera 15:00etan egingo dute Trianguloko geltokitik.

**Tolosa.** Hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31ean Picos de Europa irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Torre de los Horcados Rojos (2.056) Pico Urriello (2.519), Peña Castil (2.442) eta Torre de la Pardina (2.596) igoko dute. Izena emateko 637 830380 zenbakira dei daiteke.

**Tolosa.** Laugibar-Abodi(Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Holtzarteko zubia pasatuko dute. Zazpi ordu inguruko ibilaldia da. Irteera 6:00etan Gorosabeletik. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak oporraldia antolatu du Benidormen irailaren 29tik urriaren 13ra. Bazkideek 455 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 461 euro.

**Tolosa.** Uztailako asteazken eta ostegunean buzeatzeko doan erakutsiko diete Usabalen 11 urteko gorakoei 18:30ean.

**Villabona.** Larrañe-Otsogorrigaina-Belagoa (Zuberoa) irteera antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
 Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Irailu uhinak.  
 21:00-23:00etara. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Oargi mendi elkartearen Logibar-Abodi mendi zeharkaldia**

**TOLOSA** ▶ Eguraldi onarekin batera, eskualdeko mendi elkarteak mendi irteera ugari antolatzen ari dira asteburuetan zehar. Uztaila da hilabeterik aproposena eta hori jakinda, Tolosako Oargi elkarteak Logibar-Abodi mendi zeharkaldia egingo dute, hilaren 15ean, igandearekin, Orhi mendia (2.017 m) igoz. Irteera goizeko

06:00etan egingo dute Gorosabel kaletik eta zeharkaldiak zazpi ordu inguruko iraupena izango duela aurreikusitako dute Holtzarteko zintzurra paregabea —argazkian ageri dena— eta bere zubi eza-guna pasatzeko aukera paregabea izango dute, paisaia zoragarriez gozatzeko parada ere izango dutelarik. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Gorka Altuna Esnaola (Alegia).  
 Gaur 9 urte. Muxu asko familiaren partetik, bereziki Unai.



**URTE ASKOAN**  
 Ioritz (gaur) eta Aiert (bihar).  
 Zorionak bioi. Etxekoak eta maite zaituztegunok.



**URTE ASKOAN**  
 Alain Luisa. Barrunditarren partez 11 muxu goxo; bereziki Egoitz eta Aratzen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Joxe Jabier Urkola. Odolkiak ordinetan. 47 muxu goxo Naroa eta Izareren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...